

BERRI OROKORRAK

2025eko ekainaren 13an 35. zenbakia

2025/2026 ikasturterako zerbitzuetan izen-ematea

Garraio-zerbitzua

Datorren ikasturterako garraio-zerbitzua antolatzen hasiak gara. Gogoratu, izen-ematea urtero egin behar dela, erabiltzaile berria izan ala ez. Ibilbideak eta geltokiak izena eman duten erabiltzaileen beharren arabera egokitzen dira. Zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusiz gero, [galdetegi hau](#) **ekainaren 20a** baino lehen erantzun beharko duzue.



Edozein zalantza edo argibidetarako usurbil@ikastola.eus helbidera zuzendu.

Goizeko zaintza

Egunero, ikasturte osoan, 8:00-9:00 orduategian Agerialdeko eraikinean zerbitzu hori eskaintzen da. Izen-ematea **ekainaren 20a** bitarte egin daiteke [galdetegi hau](#) betez.

Arratsaldeko zaintza

Irailean zehar, klase orduak goizetik soilik direnean, 14:30-16:30 orduategian zaintza eskainiko da, ikasle kopuru minimoa osatzen bada. Zerbitzua behar izanez gero, bete mesedez [galdetegi hau](#) **ekainaren 20rako**.

Jangela

Datorren ikasturteko jangelako zerbitzua antolatzeko, familien beharrak zeintzuk diren jakin behar dugu, hori dela eta, mesedez, [galdetegi hau](#) **ekainaren 20a** baino lehen betetzea eskatu nahi dizuegu.

Ikasle-agendak 2025/26 ikasturterako

Udarregi Ikastolak, aurten ere, 2025/26 ikasturterako ikasleentzat eskola-agenda argitaratu du. Euskara hutsean editatuta dago eta ikastolarako primeran etorriko zaie ikasleei! Salmenta prezioa **7,20 €-koa** izango da eta eskuratu nahi izanez gero, [galdetegi hau](#) bete beharko da **datorren ostirala, ekainaren 20a, baino lehen**. Galdetegiari, ordainagiria atxiki beharko zaio eta ordainketa Rural Kutxako honako kontu honetan egingo da: ES31 3008 0259 1120 8479 6727. Kontzeptuan ikaslearen izen-abizenak jarri.



Araba euskaraz

Igande honetan Gasteizen Araba euskaraz ospatuko da. Anima zaitez eta parte hartu!

Hemen duzue [informazioa](#) eta [Araba Euskaraz](#) bideoa.

etengabe
arabaeuskaraz'25

Apelliduak abizendu ekimena

Udaletxeko euskara sailetik *Apelliduak Abizendu* ekimenaren berri eman nahi da. Hona hemen bidalitako [gutuna](#)



Usurbilgo Udala

Kirolari Abonua

Eskatzeko epea: uztailaren 1etik 20ra (urtero)

Indarraldia: abuztuaren 1etik hurrengo urteko uztailaren 31ra (elkarteen ohiko denboraldia)

Zer da?

Jarduera fisiko eta kirol saileko araudiaren arabera, derrigorrezkoa da kirol instalazioen erabiltzaileak abonatuak izatea, erabilera hori elkarte edo talde bati lotua baino ez badago ere.



Usurbilgo Udala

Herritarren beharrei erantzuteko, abonua mota berria sortu da: Kirolari-txartela. Abonua arruntaren %60 da bere prezioa, eta klubetan, eskola kirolean zein bestelako elkarteetan dabilzanentzako pentsatua dago. Baldintza batzuk ere baditu:

- Abonua indibidualak izango dira, eta berezko abonua %60eko kostua izango du.
- Kirolari txartelak eskubidea emango du soilik elkarte edo eragile horren entrenamendu zein jardueretan aritzeko.
 - Adibidez, Zirimaran izena emanda dagoen haur batek kirolari txartela eginez gero, abonua normalaren ordean, ezingo du igerilekua erabili.

Argibide gehiagotarako, kiroldegiko harrerari (943372498) eta kirola@usurbil.eus helbidera idatzi.

HAUR HEZKUNTZA

HH 5eko familiei zuzenduta

Ekainaren 19an 16:30ean 1. mailako geletan, LHra ongi etorria emateko bilerak egingo dugu. Bileraren helburua, ikasturte hasierarako baliagarria izan daitekeen informazio orokorra ematea da.


Telegram zerbitzua eskainiko da, beraz behar duenak aplikazioa jaitzita eta kaskoak ekartzea komenigarria da.



Ur-festa

Ekainaren 20ean, ostirala, eguraldiak laguntzen badu, ur-festa egingo dugu HH-n. Haurrak bainujantzia soinean dakartela, bustitzeko oinetakoekin eta kremaz igurtzirik bidali, mesedez. Motxilan toalla eta aldatzeko arropa sartu.

Jolaserako materiala guk jarriko dugu.



Paperezko poltsa

Gogorarazi nahi dizuegu zuen seme-alabek hiruhilabete honetan egindako lanak etxera eramateko paperezko poltsa ekartzeaz.




LEHEN HEZKUNTZA

Ur-festa

Ekainaren 20ean, ostirala, LH-ko ikasleek ur-festa egingo dugu. Ikasleak bainujantzia soinean eta toalla ekarri beharko ditu. Etxean eguzkitako krema emanda etortzea komeni da.

Hamaiketako berezia egingo dugu eta, horretarako, ikasle bakoitzak edalontzi bat ekarri behar du.



Irteeren kobrantza

Astlehenean, ekainak 16, honako irteeren kobrantza egingo dela jakinarazten da:

➤ **LH4:** Txuri Urdin eta Zinemaldia. Desglosea:

- Txuri Urdin busa: 7 €
- Txuri Urdin sarrera: 4,5 €
- Zinemaldia busa: 4,5 €
- Guztira: **16 €**



➤ **LH2:** Txurrukara egindako irteera. Amaitzeko falta den zatiaren kobrantza izango da hau. Egonaldiaren azken zatia **7,75 €** izango litzateke.

Arropa galdua

Agerialdeko sarreran dagoen arropa galduen txokoan dagoen arropa ekainaren 20an, hustuko da.



LH 4ko familiei zuzenduta: LIBURUTRUK 2025/2026

ZER DA LIBURUTRUK?

Sistema honen helbururik nagusia testu-liburuak ahal den ikasturte gehienetan berrerabiltzea da. Hitz Aho Guraso Elkarte eta Ikastolaren artean koordinatuz egiten da. Ikastola liburuak eskatu, familiei kobratu eta ekaineko azken egunean liburuak jasotzeaz arduratzen da. Bestetik, Hitz Aho Guraso Elkarte liburuak sailkatzeaz arduratzen da. Sistema hori erabiltzeko arrazoiak:

Guraso elkarte



- 1- Seme-alaben heziketa hobetzea: zenbait balore garatzen lagunduko diegu; besteekiko elkartasuna, guztien gauzak zaintzeko joera, komunitatearekiko lotura, kontsumo arduratsua eta inguruarekiko errespetua,...
- 2- Ekonomikoa: parte hartzen duten familiek liburuetan gutxiago gastatuko dute. Berrerabilgarriak diren liburuen zati bat ordaintzen delako.
- 3- Ekologikoa: liburuak berrerabiltzeak paperaren kontsumoa eta sortutako zaborra gutxitzen du.

Sistema hori LH5. mailatik gorako ikasleentzat da. Beraz, **ikasturte honetan LH4. mailan dagoen norbaitek ez balu parte hartu nahi, usurbil@ikastola.eus helbidera mezua idatzi beharko luke. Horretarako epea ekainaren 13an amaitzen da. Gainontzeko mailetakoen kasuan, mezua aldaketarik balego soilik idatziko lukete.**

Gogoratu, behin Liburutruken sartuz gero ezingo dela irten, bestela, ordura arte baliatutako hobarien itzulketa egin beharko litzaioke ikastolari.

Antolaketa horren baitan, hurrengo ikasturteen amaieran, liburuak Ikastolan utzi beharko dituzue eta hurrengo ikasturteetako liburuak eskuratzeaz Ikastola eta HITZ-AHO arduratuko dira. **Berrerabilgarriak diren liburu GUZTIAK egoera onean itzuli behar direla gogorarazten da, bestela, falta diren liburuak kobratu egingo dira.**

GAURKO parte hartuko ez duela adierazten ez duen familia guztiei, **60 €-ko fidantza kobratuko zaie ekainaren 16an** eta gerora ez zaie bueltatuko, ez duela parte hartu nahi esaten badu ere.

Ordutegia

DBHko ikasleek, gaurtik, 20ra bitarte 8:25etik 12:30era izango dituzte eskolak.



LIBURUTRUK 2024/25

Liburutruk-eko **liburuen jasoketa ekainaren 20an** egingo da. Ikasleek, berrerabili daitezkeen liburu guztiak ekarri beharko dituzte egun horretarako.

Libururen bat egoera onean ez badago edo falta bada, dagokion zatia kobratu egingo da.

Guraso elkartea

